

PRENTSA OHARRA 2019.03.27

## Nantes, euskal zinemaren erakusleiho

- **Zortzi film luze eta zortzi film labur eskainiko ditu Nantesko Zinemaldiko euskal leihoak**
- **Filmez gain, euskal zinegileen ordezkaritza zabala jasoko du jaialdiak egunotan**

Frantzia Espainian egindako zinemari eskainita antolatzen den jaialdirik nabarmenenak, Nantesko Festival du Cinéma Espagnol izenekoak, 29. edizioa izango du aurten, eta martxoaren 28tik apirilaren 7ra egingo da. Euskal zinemaren erakusleiho garrantzitsu bilakatuko da aurten ere jaialdia Etxepare Euskal Institutuak, Euskadiko Filmategiarekin lankidetzan, babesten duen Fenêtre Basque edo Euskal Leihoari esker.

Zortzi film luze eta zortzi labur eskainiko dira aurten 19 urte betetzen dituen Fenêtre Basque-n. Hautatutako filmak jaialdiaren sail ezberdinetan ikusi ahal izango dira, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin, eta horietatik batzuk sariren bat lortzeko lehiatuko dira. Nantesko Zinemaldiko Euskal Leihoak, bere leinari jarraiki (Montre-toi au monde, cinéma basque) aukera paregabea eskaintzen die euskal zinemagileei euren lanak Frantziako publikoaren, kritikaren eta zinemagintza industriaren aurrean erakusteko.

### **Euskal zinemaren eskaintza zabala**

Film laburrei dagokienez, aurreko edizioetan bezala, Kimuak programaren azken bilduman jasotako lanak eskainiko dira Nantesen; kasu honetan, 2018. urtean aukeratuak izan ziren zazpi laburrak. Horietatik bat, Miguel Ángel Jiménezzen *Kafenio Castello* (2018), gainera, film labur onenaren publikoaren saria lortzeko lehian sartu da. Film laburren zerrendarekin amaitzeko, Aizpea Goenaga zinemagilearen *Ya está* (2019) lana ere aurkeztuko da bertan; zuzendaria bera, Barbara Goenaga eta Aia Kruse protagonista dituena.

Bere film laburrekin Kimuak programan urte askotan hautatua izan den Koldo Almandozek film luze bat aurkeztuko du oraingoan jaialdian: *Oreina* (2018). Lan horrek, gainera, film onenaren Julio Verne saria eskura dezake. Film luzeekin jarraituz, Fermin Muguruzaren *Black Is Beltza* (2018) lanak lehenbiziko fikzio luzearen saria lor dezake Nantesen. Horrez gain, Josu Martinez zinegileak bigarren urtez edukiko du dokumental onenaren saria lortzeko aukera, kasu honetan *Jainkoak ez dit barkatzen* (2018) filmari esker; eta sail horretan lehiatuko da *Mudar la piel* (2018) baita ere, Anna Schultz eta Cristobal Fernandezek dokumentala.

Horiek ez dira aurtengo Fenêtre Basque-en aurkeztuko diren euskal film luze bakarrak. Fernando Bernués zuzendariak paperetik pantailara eraman duen Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2019) eleberriaren egokitzapena ere emango dute Nantesen; baita Telmo Esnaolen *Dantza* (2018) ere. Amaitzeko, Iratxe Fresnedaren *Lurralde hotzak* (2018) lanak, eta hainbat sari irabazi dituen *Un día más con vida* (2018) Raul de la Fuente eta Damien Nenowren animaziozko filmak ere izango dute tartea jaialdian.

### **Euskal zinemaren ordezkariak jaialdian**

Euskal zinemaren erakusleihu zabal eta heterogeneo honen osagarri gisa, hainbat euskal zinemagile eta aktore bertaratuko dira Nantesera egunotan. Aipatutako film luzeen egile gehienak jaialdian izango dira euren lanak aurkezten. Horrez gain, euskal ordezkariak ere egongo da jaialdiaren epaimahai ezberdinetan: Eneko Sagardoy aktore euskaldunak Sail Ofizialeko epaimahaian hartuko du parte, eta Aizpea Goenaga Dokumentalen Saileko epaimahaikide izango da.

Zinemagintzaren praktikatik apur bat aldenduz, azkenik, Donostiako Zinemaldiko zuzendari Jose Luis Rebordinosek Javier Bardem aktoreari elkarrizketa bat egingo dio Nantesko operan; azken hau baita aurtengo edizioko artista omendua. Amaitzeko, Euskadiko Filmategiko zuzendari Joxean Fernandezek, *Euskal*

*Zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* liburuaren frantseserako itzulpena aurkeztuko du ekitaldi batean. Euskal zinemagintzaren hiru belaunaldi aztertzen dituen argitalpen hau Etxepare Euskal Institutua, Euskal Kultur Erakundea (EKE) eta Euskadiko Filmategiaren arteko elkarlanaren fruitua da.

## **Fenêtre Basque-eko filmen zerrenda**

### **Film laburrak**

#### **Kimuak 2018:**

*Kafenio Castello* (2018), Miguel Ángel Jiménez

*Zain* (2018), Pello Gutiérrez

*No me despertéis* (2018), Sara Fantova

*592 Metroz Goiti* (2018), Maddi Barber

*Ancora Lucciole* (2018), Maria Elorza

*Espedizio Handia* (2018), Iban del Campo

*Ama* (2017), Josu Martinez

#### **Besteak:**

*Ya está* (2019), Aizpea Goenaga

### **Film luzeak: dokumentalak, fikzio lanak eta animazioa**

*Oreina* (2018), Koldo Almandoz

*Black is Beltza* (2018), Fermin Muguruza

*Jainkoak ez dit Barkatzen* (2018), Josu Martinez

*Mudar la Piel* (2018), Anna Schultz eta Cristobal Fernández

*Soinujolearen Semea* (2019), Fernando Bernués

*Dantza* (2018), Telmo Esnal

*Lurralde Hotzak* (2018), Iratxe Fresneda

*Un día más con vida* (2018), Raúl de la Fuente eta Damien Nenow



**+Info**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)